

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Supermerkatuak gure produktuaren eta jendearen arteko zubiak izango dira, hau da, gure produktua supermerkatuei salduko diegu, beraiek ordaindu behar dutelako gure produktuarengatik, baina gure benetako kontsumitzaileak erosleak izango dira, izan ere, gure produktua beraientzako dago eginda. Hori dela eta, gure produktuaren bezero potentzialak supermerkatuak izango dira. Hala ere, produktuaren azken kontsumitzaileak familiko ekonomiaz arduratzen direnak (18 urtetik gorakoak) izango dira, hau da, erosketak egiten dituztenak.

Merkatu-nitxoa da gure merkatuaren segmentazio mota: Bezero oso zehatzak eta berezituak dituen segmentua da.